

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Dima*



Aurkibidea

## Udalerria: Dima

### Sarrera



Dima Bizkaiko udalerria da, Arratiako eskualdekoa. Iparraldean Igorre, Lemoa eta Zornotza; hegoaldean Ubide eta Otxandio; ekialdean Mañaria eta Abadiño; eta mendebaldean Arantzazu, Arteaga eta Zeanuri. Hauexek dira Dimako auzoak: Arostegieta, Artaun, Bargondia, Bikarregi, Indusi, Intxaurbizkar, Lamindao, Oba, Olazabal eta Ugarana. Mendebaldeko euskararen barruan Arratiako euskararen barruan kokatzen da dimarren hizkera.

*Argazkia: Asier Sarasua Garmendia*

- **Biztanleak:** 1.050
- **Euskaldunak:** %88,1

### Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **24**
- Zintak: **25**
- Pasarteak: **163**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **31**
- Bideoak: **132**

### Proiektuak

- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dimako kontuek eta kantuek
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Ziortza Intxaurrearen fondoa

## Hizlariak

**Isidro -**

**Asun Aiesta Belamendia (1936)**



Dimako Santiago auzoan jaio zen, Errotazartxiki baserrian, eta sei neba-arrebatatik hirugarrena da. Gurasoak ere dimoztarrak zituen. Umezaroa Diman eman zuen, herriko eskolan eta baserriko lanetan laguntzen. Gaztezeroan ere herrian egiten ziren erromerietan ematen zituen domekak eta jaiegunak, eta gutxitan irteten zen ondoko herrietara; izan ere, Diman asko izaten ziren ermitetan ospatzen ziren jaiak. Ezkondu ere, Dimako Biteriño auzora ezkondu zen. [Bere gizonagaz](#) batera egin genion elkarriketa eta eskolaren, baserriko bizimoduaren eta jaien gainean egin genuen berba.



**Tomas Arrizabalaga (1925)**

**Elias Arza Pujana**

Bargoandia auzokoa.



**Juan Mari Atutxa (1959)**



**Edurne Atutxa Arrizabalaga (1963)**



**Anjel Auzmendi**



**Victoria Auzmendi**

**Jose Azkartetxe (1920)**

**Eduarda Bilbao Etxebarria (1905-1988)**

Dimako Bagordia auzoan jaio zen 1905. urteko urriaren 12an. Gurasoak ere Dimakoak zituen. Artzain aritu zen Arantzazura ezkondu zen arte. Euskal Herriko ipuin kontalari eta abeslari onenetarikoa izana.



**Patxi Bilbao Etxebarria (1902)**

Nekazaria eta dultzaina jolea.



**Mari Tere Bustinza Arriortua (1926)**



**Maria Juliana Ellakuria Gorospe (1942)**

**Roman Etxebarria**

Dimako Arostegieta auzokoa. Arteako [Karmen Goti](#)rekin batera egin zitzaion elkarriketa, 78 urte zituela.

**Jose Gorospe Abasolo (1934-2016)**

Dimako Artaun auzoko Iskutie etxean jaio eta bizi izandakoa da Jose. Gurasoak ere dimoztarrak zituen. Hamar neba-arrebatatik seigarrena da. Horregatik, behar asko egitea tokatu zaio, ume-umetatik, ia eskolara joateko asti barik. Lehenengo, sei bat urte zituela, artzain joan zen Otxandiora aititegaz; ondoren, ikazginen ibili zen basoan, esne-saltzaile Bilbon, Lemoako zerran eta azkenik hiltegian. Bere koinatuagaz batera egin genion elkarriketa, [Antonio Sagarnagaz](#), eta gerrako kontuak, ume eta gaztetan egindako beharrak eta bertso eta kontu zaharrak ibili genituen ahotan.



### **Karmen Goti**

Arteako Larragoiti auzoan jaioa. Dimako Arostegieta auzoan egin zitzaion elkarrizketa [Roman Etxebarria](#) rekin batera, 68 urte zituela.

### **Dabit Goti Artabe (1923-2014)**

### **Migel Iturrate Arriortua *Rabin* (1923)**



Dimako Amantegi auzoko Amantegibarrena etxean jaio zen eta beragaz egon ginenean ere bertan bizi zen. Aita bertakoa zuen eta ama Atutxekoa. Zazpi neba-arrebatatik laugarrena. Umetan baserriko beharretan lagundu behar izaten zuen, labrantza handiko etxea zelako euren. Gainera, idiak ere bazituzten eta laster hasi zen Migel "karreteru" lanean, jorjala irabazteko. Horrez gain, Dimako eliza altxatzeko lanetan ibili zen eta baita Zornotzako udaletxea eraikitzen ere. Zinegotzi ere ibili zen hamaika urtez Dimako Udalean. Beste kontu askoren artean gerrako kontuez, herriko giroaz eta gaztetan egindako lanez luze egin genuen berba berarekin egon ginenean.

### **Maria Dolores Ortuondo Atutxa**

Bargondia auzokoa.

### **Luis Ortuondo Bernaola *Etxandi* (1928)**



Dimako Biteriño auzoan jaio zen, Etxandi baserrian, eta elkarrizketa garaian ere bertan bizi zen. Baserrian aitaren familia bizi zen, errentadore, eta 70. hamarkadan erosi egin zuten. Bost neba-arrebatatik bigarrena da Luis. Umetan Dimako eskolan ibili zen, baina zenbaitetan etxean geratu behar izaten zuen baserriko lanetan laguntzen: egurrak ekarri, itaurrean egin, ganaduak jagon, etab. Baserrian egin izan du lan beti, baita gurekin batu zenean ere. [Bere andreagaz](#) batera egin genion elkarrizketa eta eskolaren, baserriko bizimoduaren eta jaien gainean egin genuen berba euren egon ginenean.

### **Braulia Pujana Anzola (1905)**



Braulia Dimako Olazabal auzoan jaio zen. Bederatzi urteetatik hamazortzi urte bete arte, etxetik kanpo ibili zen kriada. Hemeretzi urterekin, bere auzoko mutil batekin ezkondu, eta harrezkero Olazabalen bizi izan zen bere denbora guztian.

### **Antonio Sagarna Ortuondo *Kariño* (1922-2015)**



Dimako Artaun auzoko Etxagoikoa baserrian jaio zen eta gerora auzo bereko Iguntzagoikoa joan zen. Gurasoak ere dimoztarrak zituen, aita Artaungoa eta ama Bargundikoa. Sei neba-arrebatatik laugarrena da Antonio. Umea zela, aitak ardiak ekarri zituen etxera eta anaia zaharra hasi zen berauek jagoten. Laster ekin zion Antoniok ere lanbidea ikasteari eta, ondoren, bizimodu guztia eman dio pastoretzari. Han eta hemen eduki izan ditu ardiak barrutiak jaten: Morgan, Larrabetzun, Etxanon... Gaztaiak, ostera, Galdakaon saltzen zituen. Artzain ibilitako garaiez gain, gerrako kontuez ere luze egin genuen berba beraragaz egon ginenean, bertso eta kontu zaharrak ahaztu barik. [Jose Gorospe](#) koinatuagaz batera egin genion elkarrizketa.



### **Juliana Sagarna Ortuondo (1907)**

Artaun auzoko Itzalgoikoa etxekoa.

### **Balentin Ziarrusta (1927)**



Dimako Munitta baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Gazte denboran lan ugari egin behar izan zuen. Aitak ehulea zuen etxean eta telak egiten zituen. Aitari lagundu behar izaten zion eta gero basora joan lanera. Basoan lan egin izan du mutikotatik eta, gainera, garai haietan aurrerapenik ez zegoenez, trontzarekin ibiltzen ziren. Animalia izenak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2002an.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Natura

### 1.1. Lehen putzu gehiago eta zomorro gehiago

- **Hizlaria(k):** Ziarrusta, Balentin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** DIM-001/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**  
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Zomorro asko galdu dira lehendik, lehen putzu gehiago zeudelako. Lehen igelak kantuan entzuten ziren, baina gaur egun ez. Zomorroi lokatzatan egotea gustatzen zaie, eta putzuak desagertzean (lehortzean) asko galdu egin dira.

#### Transkripzioa

-Asko aldatu da, animaliak eta mamarruak-eta asko aldatu dira?

-Bai asko aldatu da.

-Bai?

-Bai. Eske lehenao pozuek-eta egoten zien honetan, txarkoak-eta; oin ez dau txarkorik bez, oin ez dau ezer ta. Sano aldatu da hori. Lehenao hemen ranea, txubelazue-ta, kantetan geubean, goxean kantetan txarkoan paraute; oin ez da entzuten, oin ez da entzuten.

-Gehien aldatu dana zer da?

-Hori aldatu ba aldatu, pozuek-eta kendu ein diez ta, pozuek eta kendu ditue, ze horrek gure iziten deure lupetza. Zuk esango dozu /esangozu/ mamarruak, gustetan jako lupetza. Hori oin be iturritan-ta, egoten da iturri eta iturrik dauzen lekuen-ta, tuberien be sartzean da hori, horrek korridu eiten deu, tuberien artean korridu eiten deu, eta lupetza bigun dauen lekuen hor egoten diez oin be, baia gitxi ikusten da, gitxi ikusten da, ez da ukusten, lehenaoko moduen e, lehenao bai, lehenao nahiñon ikusten ziren, esku artean beti; oiñ ez da ukusten holakorik.

### 1.2. Ogigazta, pizti arriskutsua

- **Hizlaria(k):** Ziarrusta, Balentin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** DIM-001/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**  
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Abere gutxiago ikusten dira lehengo aldean. "Ogi-gaztaia" (erbinudea) abere arriskutsua da eta pozoi handia omen du; haren horzkada oso arriskutsua da. Mixarrak eta bestelakoak ere gutxi daude lehengo aldean. Lehenago basakatu eta mixarrak harrapatzen ibiltzen ziren, haien larrua saltzeko.

#### Transkripzioa

-Lehen esan dozuzena ogigaztaia eta basakatua eta holakoak be aldatu

dira?

-Bai, horrek be sano, lehenao ogigaztaia ta... Ogigaztaiak beneno handie deko, ogigaztaiak, bu...

-Peligrosoa da?

-Peligrosoa eta beneno handie, ogigaztaiagaz kontuz!

-Bai e? Txikie da.

-Txikie baie okerra. Ogigaztaiak usike eiten badotsu /botsu/ joan medikugana arin ze... beneno purue.

-Hagiñetan?

-Beneno purue. Honek zerak mixerra ta... Bai, mixerra hondiño badao, baia honik basakatue-ta bo bai... honitan gitxi. Lehenao..., lehenaoko zaharrak honek basakatuok-eta honik zerak narrue, narruek balio iziten euen / iziteuen/ asko, ta haik ibiltan ziren harrapetan, basokatuek-ta harrapetan-ta.

-Bai? Hamen inguruan? Arratia inguruan-eta?

-Bai, azagarie-ta.

-Azalaria be bai e? Narrua saltzeko.

-Zepoakaz eta lehenao asko ibiltan ziren. Oin horrek hemen inguruen ez dauku, gitxi ikusten da, gitxi ikusten diez horrik.

## 2. Baserria

### 2.1. Txernobilekoa igarri zuen sagarretan

- **Hizlaria(k):** Atutxa, Juan Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Erref:** DIM-007/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  - Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Bittor Kapanagak esaten zuen hemen ere igarri zela Txernobilekoa; hurrengo urtean sagar-loreak belztuta agertu ei ziren erradioaktibitateagatik. "Arata" (ahatea) animalia sakratua zela esaten zuen. Usoa asko gustatzen zitzaion, eta hazi ere egiten zituen.

### Transkripzioa

Naturarekin euki euezen zerak be, ba, nik e hartzen neutsezan. Nik badakit, esate baterako, Txernobilekoa gertatu zanean ta hori, ta beraz sagarrak-eta loran hasten zirenean, ta Txernobilekoa gertatu ta handik urtebetera, eta esan osten, ba, berak igarri euela. Berak igarri euela, ze beran ortuan-ta, beren zeran, baratzean eukiten euezen, ba, sagarrak-eta loran hasi zienean eta orrie botaten, eta harek orriek baltzituta. Eta berak igarri euela eta honaiño be etorri zala Txernobilekoa gertatuta be bai. Eta honaiño be heldu zala hori, ba, hango radioaktibidadearen kontue. Ta gero, ba, beste... ba hegaztiek eukiten euezen nik uste dot nahiko estimidu. Berak "ahata", "ahata" esaten [zeuen], ba, ez dakit hor egon zan herri zeran e hegazti sakratua bezela euki euela, eta hori ahatana, eta hori. Eta gero usoak. Usoak be bai. Ta usoak. Ta nik ba benetan hemen ba Santa Mañek izeten die ta Santa Mañetan uste dot beragaz, beren etxean, ze

bere ama be ezeutu nauen eta anaia Santi be bai. Ta baten, bazkaldu giñun ta ze, ta ba usoa. Eta, ba, bueno, ba, nik usorik ba ez nauen asko... ni jan bakoa nintzen. Ta berari usoa hegatzirik ba... Ta usakumea, usakumea jan giñun, berari ba, gusteten jakon eta hemengo zera [azaltzen] zalako. Berak hazi iten euzen, ganera, usakumeak eta.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Animalia izenak: ogigazta, basakatua, ur-txakurra? (DIM-001/003)

Animalia-izenak: "ogi-gaztaia" (erbinudea), basakatua, azeria? "Ogi-gaztaia" nolakoa den. Basakatu-klaseak daude, baina denek izen bera dute. Basakatuaren antzekoa, uretan ibiltzen dena: ur-txakurra. Inguruetan halako gutxi ikusten dira.

### 2. Erlastarrak eta "kurrilloak" (DIM-001/006)

Erlastarren eta "kurrilloen" arteko aldea. "Erlastarra" okerragoa da norberarentzat, ausiki egiten du eta.

### 3. Sagarrek izaten dituzten zomorroak (DIM-001/007)

Sagarrek edukitzen duten mamarroari "lupue" deitu izan diote. Harrak edo zorriak ere izan ditzake sagarrak.

### 4. Zorriak, ardiak eta kaparrak (DIM-001/008)

Buruan edukitzen den zomorroari zorria deitzen zaio eta gorputzean izaten denari ardia. Lehenago pertsonen gorputzean ere zorriak izaten zituzten. Berak ere izan omen zituen soldaduskan egon zenean. "Kaparrea" da horien antzeko zomorroa; hau gorputzera itsasten da.

### 5. Inguruetan ugarienak basurdeak (DIM-001/014)

Bera ez da inoiz ibili ehizan, baina basoan lanean sarri. Inguruetan jendeak badu ehizarako zaletasuna. Azkonarrak ibiltzen dira oraindik inguruetan. Azkonarraren inguruko kontuak. Inguruetan gehien dabilen animalia basaurdea da. Ziurrenik gaur egun babestuta daudelako mantenduko dira zenbait animalia, lehen hil edo tiroekin beldurtu egiten zirelako. Azkonarrak zepoarekin harrapatzen zituzten.

### 6. Piztien larrua abrigoak egiteko (DIM-001/016)

Basapiztien larrua abrigoak egiteko saltzen zen Bilbon. Bere emaztearen aitak harrapatzen zituen halako piztiak zepo handiekin.

### 7. Kuku eta txantxangorrien arteko kontuak (DIM-001/019)

"Txindorraren" (txantxangorriaren) habian arrautzak jartzen ditu kukuak; eta, gero, kumeak "txindorrak" hazten dizkio. Euren etxe inguruaren ere izan zuten halako habia bat.

## **8. Basoko lana gogorra eta irabazia urria (DIM-001/021)**

Lehen piztia gehiago ikusten ziren basoetan. Inguruetako basoetan ibiltzen zen lanean trontzarekin. Egun guztian gogor lan egin eta gutxi irabazten zen. 14 urterekin hasi zen basoan lanean. Bidea egiten ibili zenean, astean pezeta bat irabazten zuen. Nola egin zuten bidea.

## **9. Aitak tela egiten zuen; ehulearen inguruko azalpenak (DIM-001/023)**

Munitta baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Aitak ehulea izan zuen eta telak egiten zituen. Berak aitari lagundu behar izaten zion lehenbizi eta gero basora lanera. Ehulearen inguruko azalpenak. Asturiar bat izaten zuen aitak laguntzaile gisa. Inguruetan baziren ehule gehiago. Azkenengoz, alkandorak egiteko tela egin zuten. Haria harilean edo matazetan etortzen zen; "hari-bolea". Ehulea. Tela egiteko prozesuaren inguruko azalpenak

## **10. Garia eta artoa egiten ziren; gaztetako bizimodu gogorra (DIM-001/024)**

Nolako gazte-denbora izan zuen, lan eta lan. Garia eta artoa egiten ziren inguruetan. Eguraldia asko aldatu da lehendik.

## **11. Ehunezko telak izarak egiteko (DIM-001/025)**

Ehunezko telak izaten ziren lehengoak, izarak egiteko. Astoarekin saltzera eramaten zituzten gero.

## **12. Bittor Kapanagarekin batera idatzitako nobela galdua (DIM-007/001)**

1982an ezagutu zuen Bittor Kapanaga. Iruñea Kafetegiko eleberri laburren sariketara aurkeztu zen eta finalista geratu zen. Epaimahaian zegoen Bittor. Eztabaida izan zuten epaimahaian: gaztea ala zaharra ote zen? Bittorrek gaztea zela esaten zuen, eta igarri. Ipuin horretatik nobela bat irten zen, Bittorren laguntzaz. Astebururo biltzen ziren. Amaitu zuten, baina ez zen argitaratu, argitaletxean galdu zelako.

## **13. Gezurtiei berehala igartzen ziela zioen Kapanagak (DIM-007/004)**

Psikologia handikoa zen Bittor Kapanaga. Gezurtiei berehala igartzen ziela esaten zuen: "sudurra mobidu egiten da".

## **14. Bittor kapanaga: jakintsu heterodoxoa (DIM-007/007)**

Bittor Kapanagari esker euskararen munduko jende asko ezagutu du. Iparraldean behin Andolin Eguzkitzarekin aurkitu ziren, eta Bittorrek zera esaten zuen: "honek asko dakie baina ez dire ausartzen". Ikuspegi heterodoxoak zituen euskarari buruz. Juan Marik zalantzak zituenean, "zuk segidu" esaten zion, eta horrexekin geratzen da.

## **15. 'Garatu' berba, Kapanagak sartutakoa (DIM-007/009)**

Bittor Kapanagak esaten zuen 'garatu' berba berak sartutakoa zela; ordura arte "debelopamendua" frantsesetik berba erabiltzen ei zen. 'Mendebaldea' ere bai, 'Sartaldea'ren orde. Ideologia ezberdineko jendearekin zuen harremana, abertzaletasunaren barruan.

## **16. Dimako plazan ume txikien eskola (DIM-008/002)**

Dimako plaza inguruan hiru etxe bakarrik zeuden garai batean. Moja batek dotrina eta "aeiou" irakasten zien ume txikiei plazan. Gero, sei urterekin herriko eskolara. Han neskak eta mutilak banatu egiten ziren.

## **17. Egun birik behin dotrina ikastera eta erreztzera (DIM-008/003)**

Elizara joaten ziren egun birik behin dotrina ikastera eta beste egun birik behin erreztzera. Parrokoak gogor hartzen zituen. Jaunartzea egiteko zertzuk ikasi behar izaten zituzten. Eskola erdaraz ikasten zuten, baina dotrina euskaraz. Abadearen laguntzaileak ibiltzen ziren dotrina irakasten. 14 urtera arte ibili ziren.

## **18. Asunen jaunartzeko jantzia (DIM-008/004)**

Jaunartzea sei urterekin egiten zen. Zer arropa eraman zuen azaltzen du Asunek. Ahizpa gazteagoak ere soineko harekin egin zuen jaunartzea eta gero berarentzat izan zen, domeketarako. Izekok egin zion jantzia. Garai hartan joskile asko zegoen. Gero, galtzerdi zuriak eta zapata beltzak. Mutilak fraka laburrekin.

## **19. Jaunartzera baraurik; bazkaria etxean (DIM-008/005)**

Jaunartzea goizeko bederatzieta izaten zen eta baraurik joan behar izaten zuten. Gero, etxera joandakoan, txokolatea. Bazkaria etxean egiten zen: oiloa hil, harekin garbantzua egosi eta oilo hura saltsan edo tomatetan ipini. Postrean arroz-esnea. Gonbitetan ere antzeko menua.

## **20. Salome arrain-saltzailea (DIM-008/006)**

Arraina dezente jaten zuten, Salome izeneko arrainduna etortzen zelako arraina saltzen. Kaxa buru gainean hartuta ibiltzen zen. Zornotzako Astepe auzotik nola etortzen zen: Astepetik Lemoara eta handik Igorrera tranbian; Igorretik Dimara oinez.

## **21. Arrautzak saldu, olio eta azukrea erosteko (DIM-008/007)**

Arrautzak batzen etortzen ziren, Bilbora eroateko. Arrautzak saldu egin behar, kaletik olio eta azukrea ekartzeko. Goserik ez zuten izaten. Ogirik ez bazegoen, taloa edo morokila. Zer arrain klase jaten zuten. Bakailaoa dendan erosten zuten, oraingo aldean merke.

## **22. Sagar asko etxean; klaseak (DIM-008/008)**

Sagar asko zuten etxean eta saldu egiten zituzten. Sagar klase asko zuten: "gazea", "gaza-baltza", "erreinetea", urtebete sagarra.... "Gaza-baltza" ganbaran edukita zimeldu egiten zen eta oso gozoa izaten zen. Gainera, asko irauten zuen usteldu barik. Sagarrak gordinik edo erreta jaten zituzten. Ohiko bazkaria: babak, urdai edo txorizo zati txikiren batekin, eta sagarrak. Gabonetan konpota jateko ohitura.

## **23. Mahats beltza eta zuria etxean (DIM-008/009)**

Sagarrez gain, madariak ere izaten zituzten, baina gutxiago. Gabon-madaria eta makatza. Mahatsa ere asko zuten, etxe buelta guztian. Zuria eta beltza. Luisek etxean txakolina egiten zutela dio. Irail inguruan batzen da mahatsa.

Baba batzera joaten zirenean, mahatsa eramaten zuten altzoan, eta nekatzen zirenean, hura jan.

#### **24. Umetako beharrak: lapikoa ipini, egurra ekarri, galdara garbitu... (DIM-008/010)**

Umetan baserrian egiten zituzten beharrak. Bi ahizpak eskolatik etxeratutakoan, batak lapikoa ipini eta besteak basotik egurra ekarri. Txandaka. Galdara egunero garbitzen zuten errekan. Orduko xaboiak: Chimbo eta Lagarto.

#### **25. Ura iturritik ekarri behar; ilea garbitzeko ospina (DIM-008/012)**

Bizi diren etxean eurak ezkondu ostean ipini zuten ura, 1972 inguruan. Aurretik baldeetan ekarri behar iturritik. Dutxarik ez zegoen eta ahal zen moduan baldeetan garbitu behar. Udan errekan. Asunek etxe ondoan zuen erreka. Ilea garbitzeko xanpurik ez zegoen eta ospina erabiltzen zuten. Gerraostean zorri asko izan zuten. Botika bat erabiltzen zuten haiek hiltzeko, baina arrautzetatik berriz sortzen ziren.

#### **26. Eskolan ume asko batera; askotan joan ere ez (DIM-008/022)**

Adin desberdinetako umeak elkarrekin ibiltzen ziren; 60 ume inguru irakasle bakarrarekin. Aurreratuenak ipintzen zituzten beste batzuei irakasten. Azterketarik ez zen egoten. Etxeko lanak egiteko astirik ez zuten izaten. Askotan eskolara joan ere ez, itaurrean egin behar zelako edo beste lanen bat zutelako.

#### **27. Neskak tortolosean; nola margotzen zituzten (DIM-008/024)**

Jolas orduan soka saltoan jolasten zuten. Udaberrian tortolosekin. Bitarte guztietan jolasean jarduten zuten eta amak errieta etxeratutakoan. Paperarekin margotzen zituzten. Nola jolasten zuten.

#### **28. Pilotak egiten zituzten kortxoa eta hariarekin (DIM-008/026)**

Pilotak nola egiten zituzten: kortxoa ebaki eta hariarekin estu-estu egin. Bola egindakoan, orratz lodiarekin josi. Pilotan non jolasten zuten.

#### **29. Trapuekin egindako panpina eta kartoizkoa (DIM-008/030)**

Panpinak nola egiten zituzten trapu bigaz. Ahizpa gazteak panpina nahi zuen eta aita kartoizko panpina bat ekarri zien Bilbotik. Eskolarako maletatxoa ere kartoizkoa izan zuten. Ahizpak ez zizkion utzi nahi izaten.

#### **30. Dimako San Pedro jaietan zezenak; Mendekosteak (DIM-008/033)**

Aguazilak ipintzen zien musika igandeetan. Txistularia ere bazegoen. Igorreko Andra Mari jaietara gutxi joaten zen Asun, Bikarregiko jaiak ere izaten ziren eta. Diman San Pedro jaiak. Erromeria goizaldeko ordubata arte. Zezenak; torero famatuak etortzen ziren. Behin borroka librea ere egon zen. Mendekosteetan ere jai handiak.

### **31. Dultzaina jole ona izana (DIM-010/002)**

Diman jaio zen eta 79 urtez bertan bizi izan zen. 83 urte beteta ditu. Dultzaina jolea izan da, baina jada ez duela jotzen dio. Lizarrako dultzaina joleak izan dira famatuak. Berari Gipuzkoako dultzaina jole batek esan zion sekula ez zuela ikusi bera bezalako dultzaina jolerik.

### **32. Aldekoetxea baserrikoen inguruko ipuina (DIM-010/004)**

Bargoandia auzoko Aldekoetxea baserrikoen inguruko ipuina. Bi anaietako batek sugea hil nahi izan zuen, nahiz eta besteak bizirik uzteko esan. Gerrara joan eta etxera itzultzeko garaian gizon bat (sugea/deabrua, gizon itxuran) azaldu zitzaion anaietako bati. Aspaldiko ipuina izan arren, transmititu egin da belaunaldiz belaunaldi. Aldekoetxea baserrikoak eta ondoko baserrikoak eztabaidan ibili izan dira ipuina ze etxetan gertatu ote zen.

### **33. Lamien inguruko ipuina (DIM-010/005)**

Laminen inguruko ipuinak. Osabarekin artzain egoten zen Mañariko mutil gazte bati egunero neska bat joaten omen zitzaion. Osabak hanketara begiratzeko esan zion eta ahatearen antzeko hankak zeuzkala ikusi zuen. Eibarren polborarekin hasi zirenean desagertu zirela laminak dio.

### **34. Hiru zantzo botatzen zituen Mañariko neskaren ipuina (DIM-010/006)**

Mañariko bikote baten inguruko ipuina. Senargaiaren etxera joaten zen neska batek hiru zantzo (irrintzi) botatzen omen zituen. Egun batean norbait bere irrintziei erantzuna ematen hasi zen eta, horren ostean, neska hil egin ei zen. Umetan amamak kontatzen zizkien ipuinak entzuten egoten ziren, adi.

### **35. Bermeoko arrantzale bati Urkiolan gertatutako pasadizoa (DIM-010/009)**

Bermeoko arrantzale bati Urkiolan gertatutako pasadizoa.

### **36. Barrundiko senar-emazteen inguruko pasadizoa (DIM-010/011)**

Barrundiko senar-emazte batzuen inguruko pasadizoa. Gizonak behia erosi zuen eta 15 egunera ordaintzekotan geratu zen. Diruarekin behia ordaintzera abiatu zenean, emazteak nola jo zion adarra.

### **37. Larreako komentuan gertatutako pasadizoa (DIM-010/013)**

Garai batean apaiz eta fraideen inguruko ipuin asko kontatzen zen. Larreako komentuan gertatutako pasadizoa.

### **38. Fraide joan ziren bi mutilen inguruko ibilerak (DIM-010/015)**

Garai baten fraideak etxerik etxe ibiltzen ziren artoa, garia, patatak... eta ematen zitzaiena batzen. Horrez gain, eskoletara ere joaten ziren mutikoei fraide sartzeko esatera. Behin bi mutil pasiotarrekin joan ziren. Haien inguruko ibilerak.

### **39. Abokatuarengana Durangora joan zen etxejabearen inguruko ibilerak (DIM-010/017)**

Zeanurik eta Dimak pikea izan dute beti elkarrekin. Zeanurin etxejabe batek etxea uzteko agindu zion "errentadoreari" (maizterrari). Kortako satsen kontura eztabaida izan zuten eta etxejabea dotore jantzita Durangora joan zen abokatuarengana. Haren inguruko ibilerak.

### **40. Boto eskean ibiltzen zirenei ateratako bertsoak I (DIM-010/021)**

Boto eskean ibiltzen zirenei ateratako bertsoak.

### **41. Boto eskean ibiltzen zirenei ateratako bertsoak II (DIM-010/023)**

Boto eskean zebiltzanei ateratako bertsoak (azken bertso eta guzti).

### **42. 1936ko hauteskundearen inguruko kontuak (DIM-010/025)**

1936an Madrilgo korteetarako egin ziren hauteskundearen inguruko kontuak. Alde batetik, Jose Luis Gaitan de Ayala eta Santiago Martinez de Rivas eta bestetik Agirre eta De la Torre. Erreketeak etorri ziren Nafarroa aldetik eta botoak kontatu zain egon ziren, irabazi egingo zutela pentsatuta. Baina galdu egin zuten eta liskarrik gabe alde egin omen zuten. Gaytan de Ayalari amak esan ziona.

### **43. Hauteskundeetako giroa; boto eskean joan zitzaizkionekoa (DIM-010/027)**

Diman hauteskundeetan jende gogorra zegoela dio. Edadeko jendea eta emakumeak arrastaka eramaten zituztela dio. Etxejabeek botoa beraiei emateko eskatzen zieten "errentadorei" (maizterrei). Berari boto eske joan zitzaizkionekoa.

### **44. Hamahiru heriotzen inguruko bertsoak (DIM-010/029)**

Hamahiru heriotzen inguruko bertsoak (‘Lapur famatuaren bertso barriak’).

### **45. Astakumea txahala zelakoan (DIM-010/031)**

Emakume bati gertatutako pasadizoa. Goiz baten behiei jaten ematera joan eta txahala hilda aurkitu zuen. Ganadu-ermandadean eman zuen horren berri, hildako ganaduen truk dirua ematen zuten eta. Gerora konturatu ziren hildakoa astakumea zela eta ez txahala.

### **46. Umetan artzain eta umezain (DIM-013/003)**

Aita artzaina zen eta bera harekin ibiltzen zen, zortzi urterako. Asko gustatzen zitzaion. Amari laguntzen ere ibiltzen zen. Elurra egiten zuenean, Arantzazura joaten zen aitarekin eta ardiekin. Umezain ere ibiltzen zen. Mantarrarekin batzen ziren ume txikiak. Pasarte barregarria kontatzen du.

### **47. Eskolan euskaraz, laboreetan erdaraz (DIM-013/004)**

Hamalau urtera arte eskola ibili zen eta gazteleraz pixka bat ikasi zuen. Maisua euskalduna zen eta euskaraz egiten zien. Laboreak egiten ibili zen Diman, maistra erdaldunarekin.

#### **48. Seme-alabak eskolara (DIM-013/005)**

Jaunartzea egin arte, seme-alabak dotrina ikastera eramaten zituen Dimara. Semea maisu partikularretara bidali zuen eta alaba Artaungo eskolara, Bilboko maistra batekin. Senarra ikazkina zeukan. Etxean bakarrik egoten zenez, semearen laguntza behar izaten zuen.

#### **49. Kakalardoak harrapatzen (DIM-013/006)**

Tortolosean, kakalardoak harrapatzen, sokan... jolasten zuten.

#### **50. Lagunekin kartetan eta dantzan (DIM-013/007)**

Auzoan lagun asko batu eta kartetan egiten zuten domeketan, eta ondoren erromeria egiten zuten, panderoarekin. Garai hartan inguruko denak artzainak ziren. Lehen industriarik apenas zegoen.

#### **51. Hildako anai-arrebak (DIM-013/008)**

Neba-arrebak hazteagatik txikia geratu zela dio. Hainbat neba-arreba hil zitzaizkion. Kanpoko umea hazi zuen bere amak, bera jaio aurretik. Neskamea hil zitzaien. Berak neskame joaterik ez zuen nahi izan.

#### **52. Galdaratik eta lapikotik jaten (DIM-013/009)**

Lehen oilaskorik, arrainik ez zen beti egoten. Morokila jaten zuten, gurasoek galdaratik eta neba-arrebek lapikotik.

#### **53. Gazurak elikagairik ez (DIM-013/010)**

Gazta eta gazura jaten zuten. Gurasoek ondo elikatu nahi izaten zituzten. Gazurak ez zeukala elikagairik eta ez zieten bazkalorduan hartzen lagatzen. Arroz-esnea Gabonetan eta jaietan jaten zuten.

#### **54. Ikatzetarako egur-motak (DIM-013/018)**

Ikatza egiteko artea, pagoa, lizarra, haritza eta horrelakoak erabiltzen zituzten. Arantzarekin ere egiten zuten. Pinurik orduan egon ere ez zegoen.

#### **55. Hegazkinetatik ihesi kobetara (DIM-013/019)**

Hegazkinak inguruan ibili ziren gerra garaian eta mendietako kobetan gordetzen ziren. Dima suntsitu eta herritarrak hil zituzten. Arantzazun ere jende asko hil zen bonbapean baina bere familiakoak ez.

#### **56. Urrestitarrak etxean, gerratik ihesi (DIM-013/020)**

Bilboko familia bat, Urrestitarrak, etxean hartu zituzten gerra sasoiaren. Kanpaia jotzen zuten, hegazkinak zetozenean, jendea kobetan gorde zedin. Urrestitarrekin Bilbora joan ziren, Kastrexanara eta handik ere ihesi joan ziren, fronte biren erditik.

#### **57. "Ababatxoa lo" kanta (DIM-013/021)**

Ababatxoa lo-lo-lo, orain zuk eta nik gero. Zati bat du gogoan.

### **58. "Gure laztana doanean" lo-kanta (DIM-013/022)**

"Geure laztana doanean, zaldi urdinen ganean, ai geure mutile, ai geure laztana..". abesten zien umeei. Kanta asko zekizkien, baina ahaztu egin zaizkio.

### **59. Arantzazuko Ama Birjinaz bertso-sorta (DIM-013/023)**

Arantzazuko Ama Birjina aipatzen duen bertso-sorta kantatzen du.

### **60. Erromeriako musikariak (DIM-013/024)**

Bere osaba batek filarmonika jotzen zuen, Patxi Bilbaok dultzaina eta beste mutil batek danborra.

### **61. Albokarekin dantzan (DIM-013/026)**

Albokarekin asko ibiltzen ziren. Mariaren alabetatik bota egiten zituzten, baltseoan dantza egitearren. Alboka eta danbolina hasten zenean, pozik irteten zen dantzara. Agintari batek begiratzen zuen nork zer dantza egiten zuen.

### **62. Parrandak eta musikariak (DIM-013/027)**

Lehengo eta oraingo parrandak. Musikariak: `Fasio´ eta Patxi Bilbao. Anton Ortuondo.

### **63. Zezenak eta sokamuturra (DIM-013/029)**

Zezenak egoten ziren Dimako jaietan. Artaungo jaietan sokamuturra egiten zuten, bertako abereekin.

### **64. Buruko zapia jantzita (DIM-013/030)**

Auzokoekin beti ondo konpontzen ziren eta orain ere bai. Lehengo modura janzten du zapia, hamazazpi urterekin hasita.

### **65. Auzokoen komeriak jaietan (DIM-013/032)**

Jaietan auzokoek komeriak egiten zituzten. San Bizente egunean musikariak etortzen ziren baina eta biharamunean auzokoek komeriak egiten zituzten. Alaitasun handiagoa zegoela lehen uste du. Nekazaritzatik bakarrik ezin daitekeela bizi uste du.

### **66. Joskileak etxera (DIM-013/034)**

Martxanderak oiloak eroatera etortzen ziren. Joskileak etxera etortzen ziren, jantziak egitera. Bertan josi eta bertan lo egiten zuten joskileek.

### **67. Durangora garoa moztera (DIM-013/035)**

Durangora lanera joaten zen garoa moztera eta antzeko lanetara hemezortzi urterekin. Ogerleko bat irabazten zuen.

### **68. Lamien istorioa (DIM-013/036)**

Sorginak eta lamiak bazirela esaten zioten. Lamien kontuak esaten zizkieten umeei, beldurtzeko. Bere aititak lamia ikusi zuenekoa kontatzen du.

## **69. Emaginak eta sorgin-medikuak (DIM-013/037)**

Emagina emakume zahar bat izan zuen bi erditzeetan. Bi seme-alabak etxean jaio ziren. Sorgin-medikuak. Bere aitari kardu-latzaren arantza sartu zitzaion eta atera zuenean, min handiak pasatu zituen. Medikuak "enplastera"ren bat topatzeko esan zion eta hark sendatu zuen.

## **70. Txerri-hiltzea (DIM-013/039)**

Ilbeheran hiltzen zen txerria. Noiz hiltzen zen. Zezina lehortu egiten zen. Txerria zelan hiltzen zuten kontatzen du. Istorio bat kontatzen du.

## **71. Lurra lantzeko laia (DIM-013/040)**

Gizonek kopatxoa edaten zuten baina neurrian. Laietan egindakoa da. Zelan egiten zen azaltzen du. Lan gogorak zirela dio. Idiak gutxik zituzten auzoan. Etxeko behiekin ibiltzen ziren gehienak. Gatza eroatera dendara joaten ziren eta astoarekin ekartzen zuten.

## **72. Gazteleraz gutxi (DIM-013/041)**

Gazteleraz eskolan ikasi zuen. Bere amak ikas zezan nahi zuen. Irakaslea erdalduna zen eta han ikasi zuen, baina denbora gutxiz ibili zen. Durangon ere ez zen erdaraz egiten baserrietan. Artzain, soroan... aritzen ziren lanean.

## **73. Uda garaia gaztagintzan (DIM-013/042)**

Apirilean hasi eta abuztura arte, gaztagintzan aritzen ziren, emakume zein gizon. Ardiak jezten nebak ibili izan ziren.

## **74. Indabak, ogia eta artoa (DIM-013/044)**

Indabak zelan prestatzen diren kontatzen du. Ogiak eta artoak egiten zituzten. Zortzi egunetik behin egiten zuten, otzarakada. Prozesua azaltzen du.

## **75. Opilak eta taloak (DIM-013/045)**

Labea etxean izaten zuten. Pamitxak, opilak, txorixo-opilak, txintxortak... egiten zituzten. Errotak non zeuden azaltzen du. Artoa eta ogia bukatutakoan, taloak egiten zituzten. Lehen gutxiago edaten zela dio, jaietan eta Gabonetan bakarrik.

## **76. Ijitoek gazta erdia kendu zioteneko pasadizoa (DIM-015/005)**

`Kariño´ gaztak saltzera joaten zen motoan. Behin ijito talde handi baten ondotik pasa zen eta emakume batek gelditzeko esan zion. Ume mordoa inguratu zitzaizkion moto ingurura. Bertan bizitakoak.

## **77. `Kariño´ gaitzizena dela-eta bizi izandako pasadizoa (DIM-015/007)**

`Kariñ&ntilde;o&acute;gaitzizena dela-eta bizi izan zuen pasadizoa. Bera eta `Tremendo&acute;; biak artzainak, Galdakaora joaten ziren gaztak saltzera. Autobusaren zain zeudela, `Kariñ&ntilde;o&acute;; esanda agurtu zuen `Tremendo&acute;;k eta jende guztia eurei begira geratu zen.

## **78. Galdakaora motoan, gaztak eta esnea saltzera (DIM-015/009)**

`Kariño´ Galdakaora joaten zen egunero gaztak eta esnea saltzera. Galdakao osoa pasatzen zuen bere motoarekin. Nondik nora ibiltzen zen.

## **79. Umetako bizimodua; auzoko eskola bere sasoian egindakoa (DIM-015/010)**

Umetako bizimodua. 14 urtera arte ez zela irten Artaun auzotik dio `Kariño´k. Auzoko eskolan ibili zen, Asuncion izeneko maistrarekin. Eskola egiten ere ezagutu ei zuen.

## **80. Maisuak zigortu zueneko pasadizoa (DIM-015/011)**

Artaun auzoko ermitan maisu batek eskolak ematen zituen. Eskola umeen janzkera. Maisuak `Kariño´ zigortu zueneko pasadizoa.

## **81. Bilbora lehenengo aldiz joan zenekoa (DIM-015/014)**

21 urterekin soldadu joan zen `Kariño´. Ordura arte birritan zegoen Bilbora joanda. Lehenengoz 15-16 urterekin hango biltegi batera baba eroatera. Igorreraino oinez eta handik tranbian.

## **82. Eskolan "taute" esaten zioten Joseri (DIM-015/015)**

Josek umetan eskolan bizitakoa kontatzen du. `Cara al sol´ eta halakoak abestu behar izaten zituzten. Zerrenda pasatakoan "servidora de usted" esan behar zen. Bere txanda iritsi zenean ez zekien zer esan eta "taute" esan zuen. Gero hala deitzen zioten.

## **83. Irakaslearen zigorra ez jasotzearren, leihotik alde (DIM-015/016)**

Eskolara ez zela asko joaten dio Josek, etxean beti beharra zegoelako. Maisu-maistrek jo egiten zituzten. Bera leiho ondoan jartzen zen eta hurbiltzen ikusten zuenean, salto egin eta alde. Etxean zerbait esanez gero, egurra han ere. Behin anaia nagusiari kontatu ei zion.

## **84. Burla egiten zionari harrikada (DIM-015/017)**

Jose beti beharrean ibiltzen zen umetan, astoa hartuta. Burla egiten zionari harrika egiten zion. Behin nahi gabe bere koinata izango zenari eman zion harrikada. Beste mutiko batekin izandako elkarritzeta.

## **85. Soldadutzarako zozketa Bilbon; Afrikara tokatu (DIM-015/019)**

21 urterekin joan zen `Kariño´; Bilbora bigarrenenez, soldadutzarako zozketara. Bozgorailuetatik esaten zuten nor nora joan behar zen. Berari Afrikara tokatu zitzaion eta ordura arte itsasoa hurbiletik ikusi barik zegoen. Algecirasera lehenengo eta handik Marokora. Han ikasi zuen gaztelania apur bat. Eskolarik ere ez zuela dio, gerra sasoian eskolak kendu egin zituztelako.

## **86. Gerratean ibili ez arren, bonbardaketak ikusi zituen (DIM-015/020)**

`Kariñak Gernikako bonbardaketa ikusi egin zuen anaiarekin mendi puntan zegoela. Beste bonbardaketa batzuk ere ikusi zituzten. Berari ez zitzaion tokatu joatea, gaztea zelako artean, baina bera baino bi urte nagusiagoak eraman zituzten soldadu.

## **87. Soldaduei laguntzera Mugarrara (DIM-015/021)**

Gerratean fronteak non egon ziren. Milizianoak herrian. Agindu bat etorri zen esanez umeak eta andreak kenduta, beste guztiak ebakutzea komeni zela. Soldadu batzuk etorri zitzaizkien pistolarekin eta Mugarrara laguntzeko esan zien, euren lagunei jatekoa eramatera. Gaua han pasa behar izan zuen eta hurrengo egunean laga zioten etxera itzultzen. Kapitainak txokolatea eman zion.

## **88. Soldaduei laguntzetik etxera itzuli eta inor ez (DIM-015/022)**

Gerratean, 14 urte zituela, soldadu batzuei Mugarrara lagundu behar izan zien. Etxera itzuli zenean, denak alde eginda zeuden. Bazekien anaia artaldearekin Aramotzera joatekoa zela eta harantz joan zen. Anaia aurkitu zuenean, pozik!

## **89. Gerratean herri batetik bestera artaldearekin (DIM-015/023)**

`Kariño', anaiarekin batera, herri batetik bestera ibili zen gerratean artaldearekin. Nondik nora ibili ziren. Josek gizon bat ezagutu zuen eta hizketan hasita `Kariño' ren ezaguna zela jakin zuen. Hark kontatu zizkion kontuak.

## **90. Artetan nazionalekin topo; hildako soldadua (DIM-015/024)**

Gerratean hara eta hona ibili ostean Artetako San Antontxura iritsi ziren `Kariño' eta anaia. Han soldadu nazionalekin topo egin zuten. Ogiaren inguruko pasadizoa. Hildako soldadu bat zegoen inguruan. Nazionalak dena kendu zioten, baita gorrien dirua ere, eta gero ostikoz jo eta iraindu. `Kariño' k dio gerra ezagutu zuela gerrara joan barik.

## **91. Gerrateko bizipenak; Bilbo hartu zuteneko kontuak (DIM-015/025)**

`Kariñaren anaia soldadu ibili zen gerratean. "Cintur de hierro". Nazionalak itsasotik sartu ziren. Bilbo hartu zuteneko kontuak. Zaratamotik fusilen tiroen argitasuna ikusten zuten iluntzean.

## **92. Gerrateko bizipenak; meatze-zuloan gordeta (DIM-015/026)**

Kastrejanako meatze-zulo batean egon ziren gordeta gerratean Jose eta familia. Aita jateko bila ateratzen zen. Josek, artean umea, kobazulotik ihes egin zuen. Tiroek lurra harrotzen zuten eta berak pentsatzen zuen satorrak zirela. Aitak eraman zuen kobazulora bueltan.

### **93. Lemoatxen borroka gogorra (DIM-015/027)**

Lemoatxen borroka gogorrak bizi izan ziren gerratean. Jose han ibili zen beharrean gerora eta gerrateko bonba-zuloak zeuden bezala mantentzeko agindu zioten. Dena zuloz beteta geratu zen. Jende asko hil zen bertan.

### **94. Gorrien kamioiak Diman; bonbardaketak (DIM-015/031)**

‘Kariñoren’ astoarekin errotara zihoala, Dimako plazan kamioi txiki pila bat ikusi zituen pasatzen. Gorriak zihoazen bertan, aizkora, pikatxoi eta eskopetekin. Gerra luze joan zen eta pixkanaka gorriak arma gabe geratzen joan zirela dio. Lehenengo bonbardaketa Otxandion. Gero Durango, Elgeta, Gernika... Berak dena ikusi zuen.

### **95. Marmiten bristada ikusita, bonba bota ziotenekoa (DIM-015/032)**

Zaratamon ebakuatuta zeudela ‘Kariño’ri gertatutakoa. Ardi-esnea batzeko, marmitek ekarri behar izan zituen iluntzean etxetik txabolara. Marmiten bristada ikusita, hegazkinak hurbildu zitzaizkion eta bonba bat ere bota zioten. Zortea izan zuen.

### **96. Hiru soldadu Artaun auzoan lurperatuta (DIM-015/034)**

Artaun auzoan hiru soldadu ei daude lurperatuta. ‘Kariño’k dio batek bere buruari eman ziola tiroa. Josek hezurak ikusi zituela kontatzen du. Soldaduetako bat Bilbokoa ei zen. Dokumentazioan kalearen izena jartzen zuen, baina orduan inor ez zen joaten senideen bila, beldurragatik.

### **97. ‘Cara al sol’ abestu eta eskua jaso behar (DIM-015/035)**

Gerraostean eskolan ‘Cara al sol’ abestu behar izaten zuten. Klean pasatzen zen jendeak ere eskua jaso behar izaten zuen, baita iturrira arropak garbitzera zihoazen andreak ere. Joserren aitari kargu hartu zioten eskua ez zuelako jaso.

### **98. Elgetatik oinez etorri ziren soldaduak (DIM-015/037)**

‘Kariño’ren anaia, Patrizio, gerran ibili zen. Lehenengo Gorbeian eta gero Elgetan. Elgetatik oinez etorri zitzaizkien soldadu batzuk euren etxera. Zerbait jan zuten, baina triste ei zeuden, berba egiteko adorerik barik.

### **99. Soldaduekin larri, txakurrak Euskadi izena zuelako (DIM-015/038)**

Igorren eta Lemoan zubiak bota egin zituzten gerratean. Ardiekin Artetatik behera jaitsi zirenean, Erletxetan artilleriako soldaduak zeuden. Euren txakurrak Euskadi izen izena eta estutasuna pasa zuten hango soldaduekin. Berehala aldatu zioten izena txakurrari.

### **100. Lorentzo Gorospe zauritu zutenekoa (DIM-015/039)**

Gerrateko bizipenak. Igorreko Lorentzo Gorospe zauritu zuteneko kontuak. Zorte handia izan zuen. ‘Kariño’ren anaiarekin batera zebilen gerratean.

### **101. Gerratik itzulera; etxea hutsik (DIM-015/041)**

Gerratean etxera itzuli zirenean, hutsik aurkitu zuten. Ohea Lemoatik ekarri zuen aita, lepoan hartuta. Etxean laga zuten ahuntza Lemoara eraman zuten eta ordaindu egin behar izan zuten berriz etxeratzeko.

### **102. Bost-sei urterekin Otxandiora artzain (DIM-015/043)**

Joseren mutikotako bizimodua. Bost-sei urterekin Otxandiora eraman zuen aititak, artzain lanera. Han hegazkinak ikusten zituen eta jan-mina piztu zitzaion. Otxandioko artzain bat ardiekin Sondika aldera jaisten zen eta berak ere hegazkinak lur hartzen ikusi nahi. Ardia errekarra bota zueneko pasadizoa. Laugarren egunean maleta hartu eta etxera itzuli zen. Aitak ondo hartu zuen eta pozik.

### **103. Jose umetatik ikazkintzan eta artzain (DIM-015/044)**

Jose hamar urte ingururekin ikazkintzan ibiltzen zen Mugarran, anaia zaharragoari laguntzen. Gero, Igoerrera joan zen morroi. Ez ei zen artzain ona izan, ahuntzek ihes egiten zioten eta. Handik berriz ikazkintzara itzuli zen.

### **104. Bilbon karroarekin esnea banatzen (DIM-015/045)**

Jose Bilbora joaten zen esnea saltzera. Bostetan jagi, astoak prestatu, Igoerrera eraman, han tranbian kargatu... Bilbon karro bat edukitzen zuen esneak banatzeko. Bilboko udaltzainekin bizitakoak. Han ikasi ei zuen pixka bat gaztelaniaz.

### **105. Gidabaimena; zerrategian txofer lanean (DIM-015/046)**

Lemoako zerrategian lan egin zuen Josek. Gidabaimena atera zueneko kontuak. Gero, dirurik ez kotxea erosteko! Berrogeita hamar ogerleko kostatzen zen gidabaimena. Zerrategian txofer lanean ibili zen. Kamioiarekin izandako istripuak.

### **106. Soldadutzan gidari lanean (DIM-015/047)**

Joseren soldadutzako kontuak. Txofer moduan ibili zen. Gobernu militarra joan eta han kotxeen matrikulak eta nora joan behar ziren esaten zuten. Behin goizeko zazpitan Zaragozako gobernu militarra joatea tokatu zitzaion. Beste gidari bati esan zion bere lekuan joateko.

### **107. Batzokitik kaleratu egin zuten, aita zinegotzia izan zelako (DIM-017/002)**

11-12 urterekin Batzokira joaten hasi zen, ezpata-dantza ikastera. Hirugarren egunean kaleratu egin zuen Batzokiko lehendakariak, bere aita zinegotzia izan zelako Primo de Riveraren sasoian. Handik hilabeteetara, Santa Kurutzetan, eztabaida izan zuen berriz lehendakariarekin.

### **108. Dimara eskolara (DIM-017/003)**

Dimara joaten zen eskolara. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Eskolan ez zuten komunik. 60 mutil ibiltzen ziren batera. Oinarritzko gauzak ikasi zituzten. Zortzi urte ingururekin hasi zen eta gerra hasi zenean amaitu, hamahiru urterekin.

### **109. Dotrinatik ihes egin zuelako, zigortuta (DIM-017/004)**

Dotrina ikasten zuten umetan. Etxera joan behar izaten zuen beharrera eta egun baten "martxa" egin ei zien abadeei. Zazpi abade egoten ziren. Hurrengo egunean aldarean ipini zuten zigortuta, baina handik ere alde egin zuen. Bera ihesi eta abadea atzetik.

### **110. Gernikako bonbardaketaren bezperako bizipenak (DIM-017/006)**

Gernikako bonbardaketaren bezperako bizipenak. Gernikara sartzerakoan sirena entzun zuten eta bandera atera zuten. 30 aireplano inguru pasa ziren eta paperak bota zituzten, Gernika bonbardatuko zutela esanez. Bonbardaketa egunean gordelekuan egon ziren.

### **111. Muxikan fronte biren erdian; milizianoekin harremana (DIM-017/007)**

Muxikan bi fronteren erdian egon ziren. Milizianoak joaten zitzaizkien taloa eta esnea jatera. Goseak egoten ziren. Gipuzkoarrak ziren. Bost behi eduki zituzten, baina korta txikia zuten eta bi aldamenekoari eman zizkieten. Handik etxera itzuli ziren gero.

### **112. Soldaduak Juan Arrospide medikuaren bila (DIM-017/008)**

Behin soldadu batzuk joan zitzaizkien, Juan Arrospide medikua non bizi zen galdetuz. Antza denez, Gasteizko familiaren bat egon zen medikuaren etxean. Handik denbora gutxira beste soldadu batzuk etorri ziren medikuarengatik galdezka, haiek fusil eta guzti. Baina ordurako denak alde eginda zeuden.

### **113. Saibigaineko borroka; soldaduak Bizkargirako entrenatzen (DIM-017/009)**

Kaxiano izeneko artzaina Saibigaineko borrokan ibili zen. Dimako bi gizon hil ziren bertan eta Kaxiano desagertu. Muxikan soldaduak Bizkargira joateko entrenatzen zebiltzala, Kaxiano ikusi zuten. Haren aitari bizirik zegoela esan ziotenean, ez zuen sinistu. Gerratean hildako eta zauritutako ezagunak.

### **114. Dimako hamabi idi-pare Otxandioko frontera (DIM-017/010)**

Otxandion denbora luzez egon zen frontea. Hamahiru idi-pare zeuden orduan Diman eta hamabi Otxandioko frontera eraman zituzten. Beraien idi-parea libratu egin zen eta aita pozik. Baina gero milizianoak etorri zitzaizkion, idi-parea prestatzeko esaten.

### **115. Txokolatea eta koñaka hartuta, lubakietara (DIM-017/013)**

Anaia eta beste lagun batzuk Otxandiano batailoian sartu ziren euren borondatez. Markina inguruan zegoen euren konpainia. Kapitainak boluntarioak eskatu zituenen, euren burua aurkeztu zuten. Txokolatea eta koñaka hartuta, lubakietara joan ziren. Kapitainak zerbitzu guztietatik libre laga zituen gero.

### **116. Idi-pareak Otxandioko frontean, bideak egiteko (DIM-017/014)**

Idi-pareak eraman zituzten Otxandioko frontera. Euren lehengusua etorri zen "karreteru" lana egiteko, baina ez zuten onartu, politika kontuengatik. Idi-pareagatik eta "karreteru" lanagatik zenbat ordaintzen zuten. Idiak bideak egiteko erabili zituzten.

### **117. 14 urterekin, gerra sasoian, "karreteru" lanean (DIM-017/017)**

Frontea zegoen inguruetan. Ama eta arrebak Muxikan zeuden; aita, anaia eta bera Durangotik bueltan etorri ziren. Moroak ikusi zituztela gogoan du. Bera, 14 urterekin, "karreteru" lanean hasi zen idi-parearekin. Dimako karlista batentzat oheko gauzak eraman zituen gurdian.

### **118. Gerrateko bizipenak: bonbardaketak, gordelekua, etxera itzulera (DIM-017/018)**

Gerratean Dima osoa ebakuatu zen. Altzaririk onenak eurekin eraman zituzten. Etxera itzuli zirenean, etxeko gauza guztiak erreta topatu zituzten. Frontea gertu egon zenez, soldaduak etxeetan sartzen ziren. Bonbardaketak ere izan ziren Diman eta baita hildakoak ere. Gordelekura nora joaten ziren.

### **119. Gerraostean garia entregatu behar (DIM-017/022)**

Gerraostean garia entregatu egin behar izaten zuten. Kilo asko hartzen zituzten eta 500 inguru entregatu egin behar. Artorik eta babarik ez zuten eramaten. Errotak itxita egon ziren. Beraiek irina egiteko makina izan zuten, Durangotik ekarrita, eta jendea etortzen zitzaien gauez, ezkutuan garia ehotzera.

### **120. Dimako errotak; errotariaren zaldia; Mañariraino errotara (DIM-017/023)**

Diman garai baten zeuden errotak. Garai batean ez ziren errotara joaten, errotariaren zaldia etortzen zen eta; zorro bat hartu eta bestea utzi. Gerraostean zaldirik ez eta norbera joan behar astoarekin. Mañariraino ere joan izan ziren, han errotak zabalik zeudelako. Nondik zehar joaten ziren.

### **121. Bonbilla bakarra etxe guztirako (DIM-017/027)**

Etxean beti ezagutu du argia, baina bonbilla bakarra egoten zen etxe guztirako. Kortara ere huraxe botatzen zuten. Logeletan argirik ez zuten eta argimutla erabiltzen zuten. Berogailurik ez zen izaten. Beheko sua zuten. Ohean, berotzeko, manta.

### **122. "Karreteru" lanean ibili zeneko kontuak (DIM-017/029)**

14 urterekin "karreteru" beharrean hasi zen. Zazpi ogerleko irabazi izan zituen egun baten. Etxe askorentzat lan egiten zuen. Bost "karreteru" ibiltzen ziren batera. Mugarraraino ere joan izan zen. Tronkoak bidera jaistea zen euren lana. Ikatza ere garraiatzen zuten. 1943an idi zaharrak kendu eta berriak ekarri zituzten. Orduko kontuak. Idiei zer ematen zieten jateko.

### **123. Idiak Gasteizen edo Basurton erosi eta etxera oinez (DIM-017/030)**

Idiak non erosten zituzten. Bi anaiak Gasteizera joan ziren behin autobusean, bakoitzak bost mila pezeta hartuta. Idi-parea 8000 pezetan eduki zuten aginduta. Gero Basurtora joan ziren eta han 7200 pezetan erosi zuen sekulako idi-parea. Ferian erosi eta gero etxera oinez ekartzen zituzten.

### **124. Arantzazuko uztargilea; hedeak; sapak (DIM-017/032)**

Arantzazuko "Buzterri" uztargilea etxera joaten zen uztarria egitera. Egurra norberak ipini behar. Pagoa izaten zen egurrik onena. Putzuan sartuta edukitzen zuten egurra. Neurriak uztargileak hartzen zituen. Sapak, hedeak. Hedeak Lemoan erosten zituzten. Sapei zapatariak ipintzen zizkien borlak.

### **125. Bola-jokoan Artaunen San Bizente jaietan (DIM-017/039)**

Bola-jokoan ere aritzen ziren. Bolari ona izan ei zen. Artaunen ibiltzen ziren San Bizenteetan. Txartela ordaintzen zen eta irabazten zuenak diru hura jaso. Bolatokiko arduradunak ehuneko laua jasotzen zuen.

### **126. Dimako bolalekua; jaietan "arrapan", zazpi txirlorekin (DIM-017/041)**

Dimako bolalekua izan zen Arratiako onena. Haren ardura zuenak partidako diru bat jasotzen zuen. Herriko jaietan bolalekua beterik egoten zen. "Arrapan" esaten ziotenean aritzen ziren, zazpi txirlorekin.

### **127. Dimako eliza eta Zornotzako udaletxea eraikitzeko lanetan (DIM-017/047)**

Dimako eliza erre egin zen. Parrokoak eman ziola su esaten zen. Eliza altxatzeko lanetan ibili zen Migel, 17 urterekin. Zenbateko jorrala ordaintzen zuten. Bost-sei hilabete egingo zituela dio. Bitartean "Piedad"ean ematen zen meza. Zornotzako udaletxea eraikitzeko lanetan ere ibili zen.

### **128. Alkateorde lanean (DIM-017/051)**

Bera zinegotzi izan zen sasoian, Rufo Asua zen Dimako alkate. Diputatua ere bazen eta Madrilera joaten zenean, hamabost egunean ez zen etortzen. Haren lekuan, Migelek sinatzen zituen paperak, alkateordea zen eta.

### **129. Udalak pinuak saldu zituen, dirua lortzeko (DIM-017/054)**

Migel zinegotzi egon zen sasoian pista ugari egin zituzten basoetan. Bera sartu zenean, festetarako eta beste hainbat gauzatarako ez zegoen dirurik. Dimako Udalak baso ugari ditu, gehienak Otxandion. Orduan, pinuak saldu zituzten, dirua ateratzeko.

### **130. "Aitak egiña" abestia (DIM-023/001)**

"Aitak egiña" kanta abesten du Eduardak.

### **131. "Frantzie Kortekoa" abestia (DIM-023/002)**

"Frantzie Kortekoa" Kantua abesten du Eduardak.

**132. "Neskatxa bat bisi de" abestia (DIM-023/003)**

"Neskatxa bat bisi de" kanta abesten du Eduardak.

**133. "Amabietan senargei" abestia (DIM-023/004)**

"Amabietan senargei" Kanta abesten du Eduardak.

**134. "Estudiante Kondenatua" abestia (DIM-023/005)**

"Estudiante Kondenatua" kantua abesten du Eduardak.

**135. "Goiseko isar ederra" abestia (DIM-023/006)**

"Goiseko isar ederra" kantua abesten du Eduardak.

**136. "Jose Pantoni" abestia (DIM-023/007)**

"Jose Pantoni" Kantua Abesten du Eduardak.

**137. "Es postu neskatillok" abestia (DIM-023/008)**

"Es postu neskatillok" kantua abesten du Eduardak.

**138. "Sapi te sapi" abestia (DIM-023/009)**

"Sapi te sapi" kantua abesten du Eduardak.

**139. "Eskonu nintzanian" abestia (DIM-023/010)**

"Eskonu nintzanian" Kantua abesten du Eduardak.

**140. "Neure txiki polita" abestia (DIM-023/011)**

"Neure txiki polita" kantua abesten du Eduardak.

**141. "Gabetxu baten" abestia (DIM-023/012)**

"Gaubetxu baten" kantua abesten du Eduardak.

**142. "Hirureun urtetako kanta" abestia (DIM-023/013)**

"Hirureun urtetako kanta" Abesten du Eduardak.

**143. "Kanta bat ikixi" abestia (DIM-023/014)**

"Kanta bat ikixi" abestn du Eduardak.

**144. "Neska grasirosa baten" abestia (DIM-023/015)**

"Neska grasirosa batek" kantua abesten du Eduardak.

**145. "Jiralda Santandoiko" abestia (DIM-023/016)**

"Jiralda Santandoiko" kanta abesten du Eduardak.

**146. "Tabernera andria" abestia (DIM-023/017)**

"Tabernera andria" kanta abesten du Eduardak.

**147. "Tabernako sukalde sokorrua" abestia (DIM-023/018)**

"Tabernako Sukalde sokorrua" kanta abesten du Eduardak.

**148. "Ana Juanita" abestia (DIM-023/019)**

"Ana Juanita" kanta abesten du Eduardak.

**149. "Armendiko etxagune" abestia (DIM-023/020)**

"Armendiko Etxagune" kanta abesten du Eduardak.

**150. "Santa Jenobeba" abestia (DIM-023/021)**

"Santa Jenobeba" kanta abesten du Eduardak.

**151. "Bisimodu barri bat" abestia (DIM-023/022)**

"Bisimodu barri bat" kanta abesten du Eduardak.

**152. "Fandango koplak" abestia (DIM-023/023)**

"Fandango Koplak" kanta abesten du Eduardak.

**153. "Arin-Arin koplak" abestia (DIM-023/024)**

"Arin-Arin koplak" kanta abesten du Eduardak.

**154. "Amak eskondu nadille" abestia (DIM-023/025)**

"Amak eskondu nadille" kanta abesten du Eduardak.

**155. "Durungon baskaldute" abestia (DIM-023/026)**

"Durungon baskaldute" kanta abesten du Eduardak.

**156. Behi lapurraren istorioa (DIM-023/027)**

Eduarda Bilbaok istorio bat kontatzen du familia batena. Behi esnea izateko behi bat lapurtu zuen bati buruzko istorio bat kontatzen du, bere 12 kideko familiarentzako.

**157. Alarguna eta mutilzaharraren istorioa (DIM-023/028)**

Beste ipuin bat kontatzen du, hiru aldiz alargundutako emakume eta mutilzahar bati buruzkoa.

**158. Lan askodun gizonaren istorioa (DIM-023/029)**

Lan asko zituen gion bati buruzko istorio ipuin bat kontatzen du Eduardak.

**159. Mañariko neskaren istorioa (DIM-023/030)**

Mañariko neskato bati buruzko istorioa kontatzen du Eduardak. Kaletik segika izaten zituen gizonengandik desargertu zen.

**160. Abadearen istorioa (DIM-023/031)**

Azken istorioa kontatzen digu. Durungoko seminaria eta ondoren Gasteizen Abade izandako baten istorioa kontatzen digu.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)